

Herri euskalduna ez dago salbu

Idiazabalgo (Gipuzkoa) herritarren %80ak daki euskara. Herri askotan bezala, euskaraz aritu, gutxiago aritzen dira. Idiazabaldarrek ez dute ikusi nahi datozen urteetan euskararen erabilerak nola egiten duen behera. Datorrenari aurrea hartzeko plana prest dute.

MADDI SOROA

Argazkiak: M. Soroa



Idiazabaldarrak euskararen erabilera bultzatzeko kanpainaren leloa eskutan dutela.

HIZKUNTZA BAT EZ DA GALTZEN ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako bai-zik". Ez zuen arrazoirik falta Artze zenak. Esaera makina bat aldiz entzuna dugun arren, euskaraz dakienak zoritxarrez, ez du beti euskaraz hitz egiten.

XXI. mende honetan euskara ikas-
teko zerbitzuak internet bidez eskain-

tzen dira, Argentinan eta Idahon euskal etxeak daude, Korrikak inoiz baino kilometro gehiago egin ditu... baina zerbaitek huts egiten du oraindik ere; euskara dakitenen kopurua eta erabilera kopuruak ez datoz bat. Hala gertatzen da Euskal Herriko hainbat txokotan eta baita Idiazabalen ere.

Idiazabal herri euskalduna dela ez du inork dudan jartzen. Soziolinguis-

tika Klusterraren kale erabileraren neurketen emaitzei erreparatuz gero, ordea, ezagutza maila %80koa izan arren, erabilera %69koa da. Haurrak eta gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, %90. Heldu izatera iritsitakoan, ordea, %56ra jaisten da erabilera. Datozen urteetara begira, erabilerak beheranzko joera izango duela dio ikerketak. Hala, 2007an

Kontzientzia ala ohitura falta?

Ez da erraza euskararen erabilera-
ren gutxitzeari arrazoi zehatza
bilatzen. Italiarrek italieraz hitz
egiten dute, ingelesek ingelesez,
baina euskaldunak ez du besterik
gabe euskaraz egiten. Ezagutza ez
da berdin erabilera. Estatistikek
argi uzten dute euskararen erabi-
lerak etorkizunean gora egingo
duenik ez dagoela batere ziurta-
tua.

Idiazabalgo Euskara Planean
lanean diharduten ordezkariak iritzi
ezberdinak dituzte gaztelaniara
jotzeko ohituraren inguruan. Asier
Oiarbidek, Udaleko Kultura, Euska-
ra eta Gazteria zinegotziak, argi
dauka lanean eta tabernan egiten
duela herritar gehienak gaztelaniaz,
"urtetako ohitura" eta "euskarari
egozten zaion prestigio falta" jotzen
ditu horren arrazoitatzat.

Idoia Illarramendi, Emun-eko tek-
nikariak, berriz, merkataritzan bali-
bide falta dagoela entzun izan die
sarri Idiazabalgo merkatariei. Oroko-
rrean, hutsunerik nabarmenena ida-
tzizko harremanetan dagoela uste
du Illarramendik.

Anjel Oiarbide Illati euskara elkar-
teko ordezkariak, berriz, "euskarak
egunero beste hizkuntzekin duen
borrokaz" gain, "euskararekiko kon-
tzientzia falta" jotzen du gaztelaniaz
mintzatzeko arrazoitatzat. "Askotan ez
gara konturatzen gaztelaniaz ari
garela edo zenbat erdarakada erabi-
tzen ditugun" dio Oiarbidek. Gaztela-
niara jotzeko ohituraren harira, Laz-
kao Txiki zenaren esaldi bat ekarri
du gogora Oiarbidek: "Egunen
batean euskaraz hitz egiten ari gare-
naren ustean, erdaraz hitz egiten
aurkituko dugu gure burua".

herritarren %60,1ak euskaraz hitz
egiten badu ere, 2012rako %57,3ra
jaitsiko litzateke erabilera Soziolin-
guistika Klusterraren datuen arabera.

Antza, hiru punturen aldea ez da
alde nabarmena. Arrasateko Emun
aholkularitza enpresako teknikari
Idoia Illarramendik azaldu duen
moduan, ordea, "oso erraza da erabi-
lenak behera egitea, eta behin galdu-
takoa errekuaratu oso zaila izaten
da". Egoera horren aurrean, euska-
ren erabilera normalizatzeko Euskara
Plana jarri zuten abian 2003an, izan
ere, zera dute buruan: "Haur eta gaz-
teek euskaraz hitz egiten dute, baina
helduek gutxiago, beraz, zer gertatu-
ko da haur eta gazte horiek heldu iza-
tera iristen direnean?"

Helburu zehatz eta garbia du
proiektu honek: euskaraz hitz egiteari
eustea. Prebentzio politika eraginkor-
ra abian jartzea izan da herritarren

apustua, horrexek kezkatzen baititu
Idiazabalgo herritarrek, "orain euska-
raz hitz egiten da, baina zer gertatuko
da hemendik urte batzuetara?"

Idiazabaldarrek neurria egindako plana

Idiazabalgo hainbat gizarte arlotako
ordezkariak osaturiko mahaia adostu
ondoren, Euskara Plana martxan jarri
zen herrian. Helburu nagusia, 2006-
2009 artean euskararen normalizazioa
bultzatzea. Eusko Jaurlaritzaren Eus-
kara Biziberritzeko Plan Nagusia
(EBPN) eta Kontseiluaren Bai Euska-
rari plana hartu zituzten oinarri, egita-
mo bateratua eginez. Herriko eragile
ugarik hartu du parte egitasmo horre-
tan eta herrirako plana, hau da, "oso
pertsonalizatua" adostu dute. Eragi-
leak honakoak izan dira: Guraso Elkar-
tea, tabernariak, Udala, dendariak, Illa-
ti euskara elkarteak, irratia, sozietateak,

Idiazabal herri euskalduna
dela ez du inork dudan
jartzen. Soziolinguistika
Klusterraren kale
erabilera neurketen
emaitzei erreparatuz gero,
ordea, ezagutza maila
%80koa izan arren,
erabilera %69koa da

kirol elkarteak eta alderdi politikoak.
Herritarrek nahiago izan zuten plan
orokorra aplikatu baino, herriko beha-
rretara egokituko zen plana diseina-
tzea. Ondoren, Emun aholkularitza
enpresa kontratatu zuten, Jarraipen
Batzordearen bitartez, herritarrek mar-
katutako ildoak gauzatzeko.

Egitasmo horrek herriko hainbat
sektoretan ekintza planak jarri ditu
abian, beti ere, herritarren lehentasun-
en arabera. Esate baterako, lan mun-
dian, bai industrian eta baita merka-
taritzan ere, dokumentazioa,
errotuluak eta telefono deiak euska-
raz egiteko ekintza planak antolatu
dituzte. Aisialdiari dagokionez, tabe-
netan eta kultur guneetan sumatzen
den gaztelaniarako joera aldatu
nahian dihardute. Bide bera jorratu
dute familian, euskalduntze alfabetatzean eta administrazioan.

Azken batean, planak eguneroko
bizitzan gaztelaniara jotzeko ohiturak
apurka-apurka aldatu nahi ditu, eus-
karari eusteko eta etorkizunean eus-
kararen erabilera bermatzeko. Aurten
Euskara Planeko arduradunek herri-
tarrengana iristeko komunikazio kan-
paina bideratu dute. Beraz, hemendik
aurrera *Iep!* lelopean ezagutuko dute
idiazabaldarrek euskara plana. Kan-
painak euskararen gabeziez ohartara-
zi nahi du herritarra eta, era berean,
euskararekiko kontzientzia piztu. ■

Babeslea: Hondarribiko Euskara Zerbitzua

